Euskararen Gaitasun Agiria
EGA

ALTE Q202

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

C1

Proba idatzia | Lehenengo atala

A

2013
Martxoak 16

Izena .....

Deiturak .....

Ulermena

Elkarrizketa-testua
Lexikoa
Irakurmena

- **LEHENENGO ATAL HAU** egiteko denbora: **ordubete eta bost minutu.**
- Barruan **erantzun-orria** daukazu. Orri hori irakurgailu optiko bidez zuzenduko da. (*Erantzun-orria betetzearekin era horretako zuzenketari onespena ematen diozu*)
- Erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen.
- Hurrengo laukian, ariketak, puntuazioak eta denbora-banaketa:

	PROBA IDATZIA	Puntuazioa gehienez	Puntuazioa gutxienez	Proposaturiko denbora	
1. atala	**Elkarrizketa-testua**	5	—	10 min	**65 min**
	Lexikoa	5	—	10 min	
	Irakurmena	10	—	40 min	
	Erantzun-orria betetzeko			5 min	
2. atala	Iritzi-artikulua	10	10	40 min	110 min
	Idazkia	10		30 min	
	Esaldiak berridaztea	10	—	25 min	
	Egindakoa gainbegiratzeko			15 min	
	Guztira	50	**27**	2h 55 m	

ELKARRIZKETA-TESTUA

Testua osatzeko, aukeratu hutsuneetan zer jarri.

Markatu aukeratutakoak **erantzun-orrian**: zenbaki bakoitzean, dagokion laukitxoa (A-B-C). **Erantzun-orri hori zuzenduko da**; ez orrialdeotako markak.

ERRETZEARI UTZI

Behin, gure semeak hamahiru bat urte zituela, seme-alaben heziketan gurasook dugun erantzukizunaz solasean ari ginen, taberna batean, hainbat guraso.

Heziketaren ardura osoa ez da eskolaren esku utzi behar, horretan bat gentozen denok. Heziketa zentzu zabalean hartu behar da, ……**1**…… , heziketa ez baita mugatzen hizkuntza, matematika eta ohiko ikasgaietara.

Horrelakoetan sarri gertatzen denez, emakumeak eta gizonezkoak elkarri begira, besteek zer esango zain izaten ginen, eta, halako batean, ama batek bota zuen:

—……**2**…… Zer uste duzue, gure seme-alabek ez dutela erretzen? Ai, inuxenteak!

Inork ez du inozo eta inuxente izan nahi, eta purrustan hasi gintzaizkion halakotzat hartzen gintuen ama horri geure arrazoiak azaltzen, ……**3**…… .

Hona hemen han entzun ziren arrazoi haietako batzuk. Ez da zail igartzen nolako gurasoa dagokion arrazoi bakoitzari.

—……**4**…… gureak ez duela erretzen, dendena kontatzen digu eta.

— Mutilak beharbada bai, ……**5**……, horretan zentzuzkoagoak izan gara beti neskok.

— Seme edo alabarekin aski denbora ematen ez baduzu, ……**6**……, baina gure kasuan ez dut uste posible denik. Erre izan balu, igarriko genion honezkero.

Arrazoi purrustada hartatik ez nuen nik ezer garbirik atera, eta jakin-minez geratu nintzen. Handik hurrena, gure semearen gelako neskak ikusi nituen, Antiguako frontoi inguruan, korruan eserita. ……**7**…… denbora pixka batean, baina azkenerako hurbildu nintzaien:

—……**8**…… Galdera bat egin behar dizuet, baina nahi ez baduzue ez erantzun. Aurreko batean eztabaidan aritu ginen guraso batzuk, eta jakin nahi nuke zuek erretzen duzuen edo ez.

Elkarri begira geratu ziren neskak, ……**9**……, eta ez da harritzekoa ere. Harritu, harritu, ……**10**……, neu egin nintzen, nesketako batek, ilegorria bera, eman zidan erantzunaz:

Nik aspaldi utzi nion erretzeari.

Joxerra Garzia, *Kurrin-kurrun vitae*, Alberdania

1	A	beste konturik ez genuen
	B	hori ere denok onartzen genuen
	C	bazter guztiak harrotu genituen
2	A	Zuek zarete, zuek, inozoak!
	B	Bejondeigula, lagunak!
	C	Mauka ederra da, gero!
3	A	elkarrekin bekoz beko, topeka eta muturka
	B	elkarri txanda emateko ere betarik gabe
	C	patxadaz eta poliki, bake ederrean
4	A	Zer esanik ez
	B	Banengoen, ba, ni
	C	Ba, nik seguru dakit
5	A	hasita egongo dira
	B	erretzaileak dira noski aspalditik
	C	erretzeari ekingo zioten halako batean
6	A	baliteke oharkabean pasatzea
	B	gerta bitez horrelakoak
	C	bada horrelako aukerarik
7	A	Joan ez joan egon nintzen
	B	Hitz eta pitz aritu nintzen
	C	Sinistu ezinik geratu nintzen
8	A	Egundo horrelakorik!
	B	Aizue, barkatu!
	C	Aupa, aspaldikook!
9	A	ustekabean harrapatuta
	B	ezentzunarena eginez
	C	aho zabalka
10	A	esanak esan
	B	alegia
	C	ordea

LEXIKOA

Aukeratu hitz horien **baliokidea**, testuinguruko esanahia kontuan harturik.

Markatu aukeratutakoak **erantzun-orrian**: zenbaki bakoitzean, dagokion laukitxoa (A-B-C-D). **Erantzun-orri hori zuzenduko da**; ez orrialdeotako markak.

BESTEA DA MUNDUA

Arratsaldeko azken orduan, leihoetako **errezelak (11)** bilduta, argitasun **ezti (12)** atsegin batek hartzen zuen gela. Gelaren barne giroari begira, zera esan zitekeen, irudi **bihurri (13)** bat erabiliz: argia ez zela leihoetatik lasterka sartzen, zaldi arabiar apain batzuen gainean hots eta zaratots, oinez baizik, oinez eta oinutsik, isilik, zurezko **zolan (14)** eta zurezko altzarietan pausatzeko, mahai, armairu eta aulkietan, zeinei distira **apal (15)** berezi bat ematen baitzien, gelditasunaren eta bakearen **galbahetik (16)** pasata; kanpoko begirale batentzat, itxura hura baitzuen lau hormen artean sartutako espazio hark… lasaitasunetik eta gelditasunetik arnasa hartuko balu bezala.

Ikuspuntu hartatik, beraz, nekez gerta zitekeen han ekaitzik edo haize **erauntsirik (17)**, baina, beste ikuspuntu batetik, hantxe ziren hastear euri-jasak eta harri-jasak, trumoiak eta tximistak, Nataliaren gutunak markesa andereari eragin zion **aurpegiera (18)** ez baitzen beste ezeren seinale.

"Izan ere, zure absentziak desesperatzen nau, lur lehorra bainaiz zu gabe, haize bortitzak **inarrosia (19)** eta mila artesik zeharkatua; horregatik, egarri dira nire ezpainak ase ezin den egarriaz, zure ezpainen hezetasunarekin ez bada…": hitz haiek irakurtzean, berriz, ekaitz izugarria lehertu zitzaion bere barnekotasunaren gelarik barnekoenean, hitz bakoitza hodei beltz mehatxatzaile bat balitz bezala, ihurtzuriak eta oinazturak sortzen zituena, beste hodei batekin talka egin bezain laster: oinaztura haiek, bai, bere bihotz mindua mintzen eta zeharkatzen zutenak, suzko geziak **iduri (20)**…

Joan Mari Irigoien, *Bestea da Mundua*, Elkar

	A	B	C	D
11	zirriztuak	itzalak	gortinak	erretiluak
12	hutsal	zuri	zoli	leun
13	gaizto	gesal	bihozbera	bekaizti
14	zutabean	zoruan	kaiolan	oskolean
15	baxu	soil	barnekoi	gartsu

	A	B	C	D
16	ikuspuntutik	xedetik	gakotik	iragazkitik
17	burrunbarik	erasorik	eztandarik	estoldarik
18	harridura	aiurria	begitartea	losintxa
19	astindua	izutua	jalgia	indargabetua
20	bailiran	gomutan	bihurtuz	bezainbatean

IRAKURMENA | TESTU LABURRAK

Irakurri hurrengo **hiru** testuak eta aukeratu erantzun zuzenak.

Markatu aukeratutakoak **erantzun-orrian**: zenbaki bakoitzean, dagokion laukitxoa (A-B-C). **Erantzun-orri hori zuzenduko da**; ez orrialdeotako markak.

MANUEL LASARTE ETA ERIC CLAPTON

Amak esanda dakit aitona zenak Manuel Lasarte miresten zuela, are Basarri eta Uztapide baino gehiago ere. Bertsolari zuzena, zorrotza, perfektua.

Baina perfekzioa ere akatsa da. Osaba batek esanda dakit Manuel Lasarte lagunartean izatea ez zela denentzat erosoa gertatzen; ihes egiten zionik ere bazela, haren ondoan ezin zelako edozer gauza edozer moduz esan.

Akatseraino perfektua zen, izan ere, Lasarte; gehiegikeriaraino neurritsua.

Manuel Lasarteren bertsoen kasete bat daukat, *Manuel Lasarte bat* deitzen dena (Xoxoa, 1980). Bolada batean, duela hamabi bat urte, buelta asko emanarazi nizkion etxean zein autoan. Orain ere oso gustura entzun dut, Lasarte hil dela eta egin diodan omenaldi intimoan.

Eric Clapton dakarkit gogora Manuel Lasarteren zinta horrek, eta haren ezizena bereziki: *Slowhand*. Sorgindu egiten nau Lasartek bertsoak aurkezteko duen modu patxadatsuak: "Orain entzungo dituzuen bertso hauek dira…". Gizon pausatua da Lasarte zinta horretan, baina inola ere ez geldia edo geldoa. Presarik, urduritasunik eta larritasunik gabe, uneari uneak behar duena ematen dio beti doi-doi, erloju batek baino zuzenago.

Leitzan bere omenez jarri zioten irudiari kantatutako bertsoekin amaitzen da kasetea. Jaungoikoak hamar agindu emanak dizkigula gogorarazten dio Lasartek harrizko anaia bikiari. "Hik bete itzak ahal baldin badek / nik bete ez ditudanak", ematen dio ordena. Zer agindu utziko zuen, ordea, bete gabe horren gizon zuzen akatseraino perfektuak, gehiegikeriaraino neurritsuak?

Juan Luis Zabala, *Berria*

MANUEL LASARTE ETA ERIC CLAPTON

21 **Zer esan nahi du akatseraino perfektua zela?**

A Perfektua izan nahi horretan, gehiegikeria franko egiten zuela.

B Gehiegizko perfekzio hori, batzuetan akats izaterainokoa zela.

C Akastzat zuela perfektuegia izatea.

22 **Leitzako Lasarteren anaia bikia aipatzen denean, zer ulertu behar da?**

A Anaia biki hori bere irudia dela.

B Bazuela hil egin zitzaion anaia biki bat.

C Bere anaiaren harrizko irudia dela anaia biki hori.

HALLOWEEN

Txikitan kanposantura joaten ginen gaurko egunez. Etxekoen hilobiak bisitatzen genituen aurrena, eta hurbileko adiskideenak ondoren. Hildako herriko gaztearena ere bai, hunkidura bereziz, eta gurasoen despiste momentua baliatzen genuen ijitoen hilobi lorez, kandelaz eta distiraz betetakora kuxkuxera arrimatzeko. Umeak ginen, baina ipuin gutxi entzuten bagenituen ere heriotzaren inguruan, gordin asko genekien han begi aurreko lauzaren azpian gorpu bat zegoela usteltzen, zomorroen bazka, hauts bihurtzen.

Edo, ez. Beharbada, arrek sarraskitutako hilotzaren ikuskizuna ipuinik handienarekin goxatzen zen, haur zein helduentzat: gorputz haragizko hartatik aske joana zen arima, eta zerutik zaintzen gintuen, esaterako, amona maiteak. Edo, ordurako, jada hasia zen ahoz aho ibiltzen ipuinaren beste aldaera bat: ez zen arimarik, baina oroitzapenean iltzatuta eramango genuen lauzapekoa; adibidez, izar berri edo gorri bat piztuko zuen hildako gazteak gure gogoetan.

Nolanahi ere, kanposantua herri erdian zegoen, ume, gazte zein helduen bistara, heriotza bera ume, gazte zein helduen kezken artean bezala. Baina aspaldi desterratu genituen kanposantuak bazter ikusezinetara, heriotza bera legez. Orain, Halloween ospatzen dugu, hilezkorrez mozorrotuta.

Idurre Eskisabel, *Berria* (Moldatua)

HALLOWEEN

23 **Idazlea eta, txikitan, kanposantura joaten zirenean, ...**

A kuxkuxean ibiltzen ziren, hilobirik ederrena zein ote zen.

B hildako gazteen hilobietan elkartzen zen jenderik gehien, penaren penaz.

C ijitoen hilobiek aparteko ikusmina eragiten zieten.

24 **Umeak izanagatik, ...**

A heriotzaren inguruko ipuin asko entzuten zituzten.

B ipuin gordin askoak zekizkiten heriotzaren inguruan.

C primeran zekiten hildakoak usteltzen ari zirela loza azpian.

25 **Fabulazioak ere bazuen tartea, hala ere; baina ez edozeinek. Zeinek EZ?**

A Amonaren arimak zerutik zaintzen gintuenekoak.

B Gure gogoetan izar berri bat piztuko zela zioenak.

C Noizbait lauzapekoaren berraragitzea gertatuko zelakoak.

IRAKURMENA | TESTU LUZEA

ETEN DA, DUGU, GARA...

Gure ama, nahiz eta seme-alabek astero egiten diogun bisitatxoa, baserrian bizi da, berez Hondurasen jaioa eta Lekunberrira asteburuetan joaten den pertsona gazte, tratu goxoko eta pazientzia handia duen baten laguntzaz. Hasi da ikasten, baina ez daki ia hitzik ere euskaraz. Eta orain, amarekin ere erdaraz hitz egin behar izaten dugu, batetik ditxosozko errespetuagatik eta bestetik, nahi dugulako biek jakin dezaten esaten ari garena, izan ere, laurogeitaka urterekin memoriak –eta hortzek– hutsune handi samarrak izaten baitituzte.

Ez dugu diruagatik egiten, ez, pertsona hau hartu genuenean ez genuen aurkitu gure ama-hizkuntzan ari zenik, lan horri erantzuteko prest. Eta pozik gaude, gure ama geurekin bezain ongi zaindua eta oso gustura aurkitzen dugulako, joandako bakoitzean.

Amak egin digu sei senideoi gure herriko kantuen, bertsoen, esaeren, ipuinen, ohituren, pasadizoen, historiaren, aurrerapenaren histeriaren, osasunari kasu egitearen, familiakoen heriotzara arteko zaintzaren, baratzeko jardueren... transmisioa. Lehen ataleko kantu eta bertsoak, goizero jaikitzerakoan edo gauetan oheratzean, egundoko ahaleginak eginez ezti kantatzeko eta erdi esnaturik geundenoi belarriak ez ezik bihotza ere goxatzeko. Dena aitortzera, zoragarri kantatzen zigula oroitzen naiz eta ahots ederraz gain belarri aparta zuela, eta duela, oraindik ere kantuan hasten denean. Ama, ama da, eta guk gurea honelaxe bizi izan dugu!

Bera erditu zen eta gu sortu gintuen: sortu, koxkortu, gogortu eta egonkortu ahala, bera konkortu, ximurtu, xigortu, agortu... Baina, egundokoa izan behar da daukazun hura, nola bihotzean hala erraietan, hoberenaz aurrera, zeuk munduratuei ematea; zeuk egin dituzunak osatzen ahaleginduz, kontrako noranzko joerak birrinduz, egokiak lurrinduz eta behin landutakoak birlanduz. Zenetik eta senetik, denetik egingo zuen, kontzientziaz baino gehiago, belaunaldiz belaunaldi halaxe behar zuela ikasita zeukalako; beti halaxe ezagutu zuelako.

Egun, transmisio lan hori haurtzaindegiak edo eskolak egitekotan uzten dugu haurtzaroan, eta telebistak egiten du geroago, kasu gehienetan. Halere, batzuetan, gure amaren zaintzailea bezalako pertsonek betetzen dute leku hori, baina funtzioa bete gabe geratzen da, ezin baitu ezagutzen ez duena inorengan txertatu. Belaunaldi berrietan aurkitzen ditugu euskarazko balioen eta ezagutzen putzua hutsik daukaten gazteak. Kuadrillan kantuan hasitakoan, bihotzetik, haurtzaroko sentipen xamur haien indarrez eta goxo-minez, melodiak bere kasa nola darigun eta garamatzan oroitzapenen belazera, jaregindako zakurtxoa irrikari eutsi ezinik, salto eta jauzi, bere dohainez harro doan bezala, imajinatzea ezinezko zaienak. Eta ez dakite zer galtzen duten, urre koxkor hori barruan daramazula sentitzea zer den ez dakitelako. Hurrengoek, hurrengoek eta... ere izango duten ezereza!

Familiak mendeetan bete duen lekua bertso eskolek, kantu afariek, jaialdi/txapelketek, ipuin kontaketek eta kontalariek bete behar al dute? Baina, bide hau egingo al dute denek? Premia hau nola barneratu? Zer egin galera hau saihesteko?

Konplexuz jositako gizarte azpikulturala gara; ingelesa ikasteari pisu garrantzitsuagoa aitortzen diogu geurea hasieratik ongi finkatzeari baino. Eta hori egiten ez duen gizarteak ba al du kultura propioz etorkizunik? Geureari eskainitako aurrekontuak aldatzeko eta hazteko kemenik ez duten gidariekin –eskuineko/erdiko/ezkerreko– urteetako menderakuntza gainditzeko erabaki ausartagoak behar ditugula ikusten ez dutenekin?

"Euskal" aurrizki huts bihurtuak nahiz Basque Centertuak, –dun atzizkirik gabe, ez dit gure amaren irakaspena osatzen eta, kanpoko jantziz inguraturik, biluzik bizitzera kondenatzen nau!

Iñaki Murua, *Argia* (Moldatua)

Irakurri aurreko testua eta aukeratu erantzun zuzenak.

Markatu aukeratutakoak **erantzun-orrian**: zenbaki bakoitzean, dagokion laukitxoa (A-B-C-D).

ETEN DA, DUGU, GARA...

26 **Artikulugileak eta bere neba-arrebek erdaraz bakarrik egiten diote amari. Zer dela eta?**

A Beti egin izan dute erdaraz eta euskaraz; izan ere, ama, Lekunberrin bizi arren, Hondurasen jaioa da.

B Amaren zaintzaileari zor dioten errespetuagatik egiten dute erdaraz, batez ere.

C Amak urte asko ditu jadanik, eta kosta egiten zaio bi hizkuntzetan egitea.

D Amaren, seme-alaben eta zaintzailearen artean gaizki-ulerturik izan ez dadin egiten dute erdaraz.

27 **Zer eskertzen dio artikulugileak bere amari?**

A Bere aurrekoen balioak eta ohiturak maitatzen erakutsi izana.

B Bere ahots ezti eta ederrez egunero esnatu eta lotaratu izana.

C Aurrerapenei begi zorrotzez begiratzen erakutsi izana.

D Etxeko guztiak zaintzen bere bizitza osoa eman izana.

28 **Artikulugileak dio amak *"zenetik eta senetik"* erakutsi ziela erakutsi beharreko guztia. Zer esan nahi du?**

A Amak aurrekoengandik ikasitakoa erakutsi ziela.

B Ama euskaltzale handia zela, eta horren arabera hezi zituela.

C Amak zentzuz eta zuhurtasunez jokatzen erakutsi ziela.

D Amak bere kontzientziak agindutakoa erakutsi ziela.

29 **Egilearen arabera, transmisioari dagokionez, ...**

A eskolek familien lana ordezkatu behar dute. Hori da bidea.

B ondo bidean, ingelesak aurrea hartuko dio euskarari. Globalizazioak hori eskatzen du.

C telebista, bertso-eskolak, kantu-afariak... familia baino egokiagoak dira transmisiorako.

D ez dago familiak adinako garrantzia duen transmisio-biderik.

30 **Euskal kulturaren etorkizuna dela eta, ...**

A artikulugilea baikorra da.

B artikulugileak galdera asko egiten dizkio bere buruari.

C beldur da itxurakeriatan ez ote garen galduko.

D artikulugilea etsita dago .

Amaitzen duzunean:

- Konprobatu ariketetan aukeratu dituzunak **erantzun-orrian** markatu dituzula. Guztira, 30 item dira: 1-30.

- Sartu **erantzun-orria** koadernotxo honen barruan eta jaso eskua. Gelako arduradunek azterketaren 2. atala emango dizute.